



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

**ARRIAGA ANTZOKIAN**  
**LANPOSTU BAT**  
**HORNITZEKO OINARRIAK:**

**ZUZENDARITZA TEKNIKOKO**  
**LAGUNTZAILEA**

**(erref.4/2024)**

### **Lehena: DEIALDIAREN XEDEA.-**

Deialdi honen xedea da oinarri hauen eranskinetan zerrendatutako lanpostuak OPOSIZIO-LEHIAKETA bidez betetzea.

Kasuan kasuko lanpostuak dagozkien eranskinetan daude, eta bertan zehaztutako hautaketa-sistemen bidez beteko dira.

### **Bigarrena: HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-**

Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, eragotzi gabe urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 57. artikuluan xedatutakoa.
- b) Adina: 18 urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina gaindituta ez izatea.
- c) Gaitasuna: Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea; beharrezko gaitasun psikofisikoa izatea eta gaitasuna edo desgaitasuna bateragarria izatea deitutako lanpostuei dagozkien eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzearekin. Hori Udaleko zerbitzu medikoek egiaztatuko dute, laneko arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera, lanpostuan egin beharreko egokitzapenak gorabehera, pertsonen babesa bermatzeko lanaren ondoriozko arriskuen aurrean.
- d) Gaikuntza: diziplinazko espediente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik edo autonomia erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organismoetatik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaiakuntza absolutu edo berezian ez egotea, ezta funtzionarioen kidego edo eskaletara sartzeko ere.
- e) Administrazio publikoen zerbitzupeko langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea; nolana ere, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezin bat dutenek aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubidea baliatu ahal izango dute.
- f) Eranskinean hautaketa-prozesurako berariaz finkatzen diren beste betebeharrak batzuk.

Deialdian parte hartu nahi dutenek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Era berean, horiek guztiak kontratazioaren unera arteko hautaketa-prozeduran bete beharko dira, gaitasun funtzionalari buruzko c) atalean adierazitakoa izan ezik, hori udaleko zerbitzu medikoek egiaztatu beharko baitute kontratazioa egin aurretik.

Era berean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, hautaketa-prozesu bakoitzaren betekizun espezifikokoak agiri bidez izan eta justifikatu beharko dira (agiriak entregatuz).

Hala ere, prozeduraren edozein unetan Epaimahaiak jakiten badu hautagaien batek ez

dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, deialditik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren, eta egun horretan bertan emango zaio berri hautaketa-prozesuaren deialdia egin duen agintaritzari.

Hautaketa-prozesuan parte hartzea borondatezkoa da eta, hala badagokio, proba psikoteknikoak eta nortasun-probak egiteko baimena eman beharko da; proba horien emaitza balorazio-faktoretzat erabiltzea onartu beharko da, oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera.

### **Hirugarrena: ESKABIDEAK ETA ONARPENA.-**

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea (I. ERANSKINA) C.A.C Teatro Arriaga S.A.ren presidenteari bidaliko zaio, eta helbide honetan aurkeztuko da: Arriaga Plaza 1, 48005 Bilbo, **15 egun naturaleko epean**, deialdiaren oinarriak iragarki-taulan eta antzokiko webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Hautagaiak derrigorrez entregatu beharko dituzte, hurrenkera honetan, dokumentu hauek (horietako bat aurkezten ez bada, hautagaia deialditik kanporatuko da):

- 1- Onarpen-eskabidea, behar bezala beteta eta sinatuta, I. ERANSKINaren arabera.
- 2- NANaren edo hautagaiaren nortasuna egiaztatzen duen agiri ofizial baliokidearen fotokopia.
- 3- II. ERANSKINEKO 2. atalean adierazitako titulu eta akreditazioen fotokopia. Oinarri hauetan «Eskatutako baldintzak».

Agiri horiek paperean aurkeztuko dira, gutun-azal itxi batean, eta ez da agiri gehigarriak aurkeztu behar; izan ere, epaimahaiak eskatutako unean egiaztatu beharko dira alegatutako merezimenduak.

Eskabideak alegatutako merezimenduen zerrenda jaso beharko du. Ez da baloratuko eskabidean alegatutakoez bestelako merezimendurik, eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen eginak izan beharko dute. Epaimahai Kalifikatzaileak ez ditu kontuan hartuko alegatutako merezimenduak, eskatzen diren unean agiri bidez egiaztatzen ez badira.

Eskabidean alegatutako merezimenduen zerrenda aurkezten ez bada, ezin izango da zuzendu.

**Titulu, NAN/AIZ eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiri originalak derrigorrez aurkeztu beharko zaizkio Arriaga Antzokiko zuzendaritzari, kontratazioa dela eta, edo lehenago zein geroago, epaimahaiak hala erabakitzen badu. Agiriak faltan izan edo faltsuak izanez gero, bertan behera geratuko da deialdiko lanpostua betetzeko eskubidea; eta horrek ez ditu eragotziko hautagaiak dokumentuak faltsutzeagatik izan ditzakeen legezko erantzukizunak.**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako hautagai guztien behin-behineko zerrenda onartuko da. Ebazpen hori Arriaga Antzokiko iragarki-taulan argitaratuko da, helbide honetan: Arriaga Plaza 1, 48005 Bilbo. Bertan, baztertutako pertsonak zergatik baztertu diren adieraziko da, eta **10 egun balioduneko** epea emango zaie, aipatutako argitalpenaren biharamunetik hasita, alegazioak aurkezteko.

Onartutako hautagaiak aukeratzeko probetarako deialdiaren eguna eta ordua Arriaga Antzokiko iragarki-taulan argitaratuz jakinaraziko dira, helbide honetan: Arriaga Plaza 1, 48005 Bilbo.

#### **Datuen babesa.**

- a) Oinarri hauen xede den edozein hautaketa-prozesutan parte hartzeak esan nahi du hautagaiak onartzen duela eskabidean jasotako bere datu pertsonalen tratamendua, izen-abizen, NAN eta prestakuntza-mailari buruzkoa, aldizkari, iragarki-taula, web-orri eta, oro har, hautaketa-prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bitartekotan argitaratzeko; bai eta HABEK edo erakunde eskudunak euskararen edo beste edozein hizkuntzaren ezagutza-maila ziurtatzeko eta, oro har, hautaketa-prozesuko probak behar bezala prestatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren datuak egiaztatzeko baimena ematea Epaimahaiari, edo erakunde zein enpresa bati, hala badagokio, epaimahaiak hala eskatzen dionean. Eta, era berean, osasun-langile eskudunek hautagaiak deialdi espezifikoan aurreikusitako baztertze medikoen koadrorra egokitzen direla egiaztatzeko baimena ere bai.
- b) Oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuak publizitate-printzipioak arautzen ditu eta, beraz, ez da eskaerarik onartuko hautagaiak ez badu onartzen bere datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuetarako lagatzea.
- c) Hautagaiek, prozesuan parte hartzeko eskaeran, adierazi beharko dute ea Administrazio Publikoko beste erakunde batzuei honako hauei buruzko datuak lagatzearen aurka dauden: Izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila, bakar-bakarrik horien bidez enplegu-eskaintzak egin ahal izateko, legez aurreikusitako baldintzetan; aurka daudela berariaz adierazten ez bada, horretarako adostasuna ematen dutela ulertuko da.
- d) Hautagaiek emandako datuak «Lan-eskaintza» izeneko fitxategi batean sartuko dira. Fitxategi horren organo arduraduna C.A.C. Teatro Arriaga, S.A.ko Giza Baliabideen Antolakuntza eta Kudeaketa Arloa da.
- e) Interesdunek datuen sarbiderako eta datuak zuzentzeko, ezerezteko zein datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, honako helbide honetara idatziz: C.A.C. Teatro Arriaga, S.A.ko Giza Baliabideen Antolakuntza eta Kudeaketa Arloa, Arriaga Plaza 1, 48005 Bilbo.

#### **Laugarrena: EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.-**

Epaimahai kalifikatzailearen kide guztien izenak C.A.C. Teatro Arriaga SAREN iragarki-taulan argitaratuko dira.

Nolanahi ere, epaimahaiak bere lanetan aholkulariak gehitzea erabaki ahal izango du.

40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada, epaimahaiakideek ez dute esku hartu beharko, eta Arriaga Antzokiko presidenteari jakinarazi beharko diote. Hautagaiek errefusatu ahal izango dituzte, aipatutako Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

Epaimahaiko kideek hitza eta botoa izango dute, epaimahaiko idazkariak, aholkulariak, hala badagokio, eta langileen ordezkariak izan ezik, azken horrek ez baitu botoa izango. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira eta, berdinketa gertatuz gero, epaimahaiko presidentearen botoak ebatziko du.

Epaimahaia, gainera, ordezkoez ere osatuko dute; titularrekin batera izendatu beharko dira.

Epaimahaikideen erdiak baino gehiagok, titularrak zein ordezkoak izan, ez badute parte hartzen, ezin izango da epaimahaia eratu, eta ezin izango du jardun.

### **Bosgarrena: HAUTAKETA-PROZESUA.-**

Hautagaiak aukeratzeko, eranskinetan zehazten diren sistemak erabiliko dira.

Sailkapen-ordena oposizio-fasean (ariketa bakoitzeko puntuazioen batura) eta lehiaketa-fasean (merezimendu bakoitzaren puntuazioen batura) lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

Berdinketa gertatuz gero, ordena ezartzeko, lehenik eta behin, oposizio-fasean puntuaziorik handiena lortu duen hautagaiaren alde egingo da; eta bigarrenik, lehiaketa-fasean puntuaziorik handiena lortu duen hautagaiaren alde.

Lanpostua hutsik geratuz gero, edo lanpostua betetzeko eskaerarik aurkezten ez bada, Antzokiko Zuzendaritzak ahalmena izango du eskatutako baldintzak betetzen dituzten hautagai posibleen artean langile bat zuzenean eta behin-behinerako kontratatzeko.

### **Seigarrena: KONTRATAZIOA.-**

Hautagaien kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du puntuazioaren arabera, eta puntu gehien lortu dituen hautagaiarekin lan-kontratua egiteko proposamena egingo dio Arriaga Antzokiko presidenteari.

Proposatutako hautagaiak, lanpostuan hasi aurretik, sartzeko nahitaezko mediku-azterketa gainditu beharko du Bilboko udal-zerbitzu medikoetan, eta azterketa horren emaitza «gai» izan beharko da. Azterketa hori gainditu ezean, hautagaiak ezin izango du lanpostua eskuratu.

Proposatutako pertsonak ez badu aurkezten deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzearen jatorrizko dokumentazioa, edo dokumentazioa aztertu zein mediku-azterketa egin ostean ondorioztatzen bada ez duela kondizio edo eskatutako baldintzarik betetzen, automatikoki baztertuko da hautagaia, ezin izango dute kontratatu, eta jarduera guztiak baliogabetu egingo dira; horrek ez du eragotziko hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean datuak faltsutzeagatik izan dezakeen erantzukizuna.

### **Zazpigarrena: INTZIDENTZIAK.-**

Lanpostua hutsik geratuz gero, Antzokiko Zuzendaritzak ahalmena izango du eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta onartuak izan diren hautagai posibleen artean bat zuzenean eta behin-behinerako kontratatzeko, edo behin-behineko bitarteko langile bat izendatzeko.

Administrazio Kontseiluak baimena ematen dio Arriaga Antzokiko presidenteari hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko behar diren egintza guztiak egiteko.

Epaimahaiak baimena du sortzen diren zalantzak ebazteko eta hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian.



**I ERANSKINA / ANEXO I**

**ONARPEN ESKABIDEA / SOLICITUD DE ADMISIÓN**

<b>Lehenengo abizena / Primer apellido</b>	<b>Bigarren abizena / Segundo apellido</b>	<b>Izena / Nombre</b>
<b>NAN / AIZ / DNI / NIE:</b>	<b>Nazionalitatea / Nacionalidad</b>	<b>Jaioteguna / Fecha de Nacimiento:</b>
<b>Telefono zk. / Teléfono</b>	<b>Helbide elektronikoa / Correo electrónico</b>	
<b>PK / CP:</b>	<b>Helbidea / Dirección</b>	
<b>Herria / Localidad</b>	<b>Probintzia / Provincia</b>	
<b>Betebeharrak / Requisitos:</b>		
<b>Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria</b>		



**Betebeharrak / Requisitos:**

**Autocad (Gutxienez 40 ordu/ Mínimo 40 horas)**

Prestakuntza egiaztatzen dut (jarri "X" dagokion lekuan) / Acredito formación (marcar con una "X" el correspondiente)

BAI/SI

EZ/NO

**Merezimenduak / Méritos:**

**Antzerki-, dantza-, lirika- eta musika-ikuskizunak erakusten diren beste antzoki, jaialdi eta kultura-zentro batzuetako edo Arriaga Antokian egindako lanpostu-lanetan izandako lan-esperientzia (Adierazi betetako lanpostua, enpresa eta hilabete-kopurua)** Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarriako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

**Experiencia laboral en las tareas del puesto en el Teatro Arriaga u otros teatros, festivales y centros culturales en los que se exhiban espectáculos de teatro, danza, lírica y música desarrollando las funciones del puesto(Indicar puesto ocupado, empresa y nº meses)** En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

Lanpostua/Puesto

Enpresa/Empresa

Hilabete-k/Meses

-	-	-
-	-	-
-	-	-

**Merezimenduak / Méritos:**

**Hizkuntzak/Idiomas (Adierazi maila ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dena. /Indicar nivel que se posee y que se acreditará mediante certificación: B1,B2,C1)**

Euskera (B1,B2,C1)

Ingelesa /Inglés (B1,B2,C1)

**Merezimenduak / Méritos:**

**Lanpostuarekin lotutako prestakuntza (Adierazi ikastaroa eta ordu-kopurua)**

**Formación relacionada con el puesto de trabajo (Indicar curso y nº horas)**

Técnica de las artes escénicas: maquinaria, iluminación, sonido, utilería, sistemas de trabajo.

-  
-





## II. ERANSKINA

### ZUZENDARITZA TEKNIKOKO LAGUNTZAILEA

#### **1** .- Deitutako lanpostuak.-

---

- IZENA: **ZUZENDARITZA TEKNIKOKO LAGUNTZAILEA.**
- PLAZA-KOPURUA: Bat.
- LANALDIA: Osoa.
- KONTRATAZIOA: Lan-kontratu mugagabea.
- EGITEKOAK: Zuzendaritza Teknikoaren arabera, agertokiko jarduera teknikoak eta teknikari-taldeak antolatzen eta kontrolatzen laguntzea, bai eta zuzendari teknikoari laguntzeko zeregin teknikoak, administratiboak eta komertzialak kudeatzea ere, laneko gidalerroak eta prozedurak aintzat hartuz.
- JARDUERAK:
  - Makinari-tramoiariak, elektrikariak eta horien laguntzaileak, zamalanetako langileak eta ikuskizunak behar bezala egiteko beharrezkoak diren dekoratuak, eszenografiak, argiztapen- eta soinu-ekipoak eta ikus-entzunezkoak muntatzeko behar diren langileak agertokian egiten dituzten lanak antolatzen, gainbegiratzen eta banatzen laguntzea, bai entseguetarako, bai antzezenetarako.
  - Ekipoen eta instalazioen funtzionamendua antolatzen, kontrolatzen eta gainbegiratzen laguntzea, muntaketetan, desmuntaketetan, entseguetan eta antzezenetan behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatuz, hautemandako akatsak konpontzen saiatuz edo konpontzeko horien berri emanez.
  - Prebentzio-jardueren koordinazioa kudeatzea konpainiekin eta teknikariek, laneko arriskuen prebentzioari eta autobabesari buruzko araudia betetzeko.
  - Eszenografia, muntaketa eta instalazio eszenikoen, argiaren eta soinuaren fitxa teknikoak eta plano kotatuak egitea, kopiazea eta teknikoki interpretatzea, AUTOCADen bertsioak erabiliz.
  - Barneko eta kanpoko kudeaketaren arloan, arlo teknikoko fitxa teknikoak, deiak, bisitak eta, oro har, korrespondentzia kudeatzea, bai eta arloari zuzendutako dokumentazioa jasotzea ere.
  - Konpainiei, kanpoko enpresei eta erakunde ofizialei arreta ematen laguntzea maila teknikoan zuzendari teknikoaren esku-hartzea eskatzen duten gaitan, eta izan ditzaketen beharrak antzematea eta horiei erantzutea.
  - Antzokiaren logistika ikuskatzen eta bere arloko biltegiak kudeatzen laguntzea.
  - Prebentzio-baliabide gisa eta antzeko eginkizun gisa laneko arriskuak prebenitzeko protokoloak betetzen direla zaintzea.

- Antzokiaren ebakuazio egokia eta segurua ziurtatzea, beharrezkoa balitz.
  - Agintzen zaizkion zereginak egitea, lanpostuan sartzeko eta hura betetzeko eskatzen den kualifikazioarekin bat etorriz.
- **ORDUTEGIA ETA LANAREN GARAPENA:** lan-hitzarmenaren arabera, sail teknikorako ezarritakoa, baina zerbitzuaren beharrak kontuan hartuz. Ondorioz, Zuzendaritza Teknikoaren gidalerroen arabera, lanaldi jarraituan edo lanaldi zatituan egin ahal izango da, goizez, arratsaldez eta/edo gauzez, astelehenetik igandera, asteko edozein egunetan, jaiegunak barne, erabateko prestasunarekin, lan-legerian eta enpresa-hitzarmenean ezarritako mugei kalterik egin gabe.
  - **ORDAINDU BEHARREKO OINARRIZKO SOLDATA:** lan-hitzarmenaren arabera, agertokiko burutzari dagokion soldata bera. Erabateko prestasuna eta arduraldi eskusiboa dela-eta, arduraldi osoko osagarri bat ordainduko da. Horrek esan nahi du ez dela inolaz ere aparteko ordurik ordainduko, eta jarduera dela-eta gehiegizko lanaldiren bat gertatuz gero, indarreko lan-araudiaren arabera konpentsatuko da, baina ez aparteko ordu gisa. Jaiegun-plusa, gau-plusa, plus toxiko-nekagarria eta produktibitate-plusa ordainduko dira, lan-hitzarmenean ezarritako baldintzetan.

## 2.- Eskatutako baldintzak.-

---

Honako titulu hauek izatea:

- 1-
  - Graduak unibertsitate-ikasketak (lizentziatura) honako adar hauetan: Ingeniaritza eta Arkitektura, Zientziak, Arteak eta Humanitateak, edo, bestela,
  - Goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak (Lanbide Heziketa II), honako heziketa-arlo edo -ziklo hauetan: Irudia eta Soinua, Elektrizitatea eta Elektronika, edo baliokidea.
- 2- AUTOCADen gutxienez 40 orduko prestakuntza egiaztatzea.

## 3.- Epaimahai kalifikatzailea.-

---

- **PRESIDENTEA:** Administrazio Kontseilukoa izango da, edo hark eskuordetzen duena.
- **3 KIDE:** Horietatik bi Arriaga Antzokiko Administrazio Kontseiluko kideak izango dira, eta zuzendari teknikoa edo hark eskuordetzen duena, zeinak eginkizunak eta jorratu beharreko gaiak ezagutuko baititu.
- **IDAZKARIA:** Administrazio Kontseilukoa izango da, edo hark eskuordetzen duena.
- Arriaga Antzokiko **LANGILEEN ORDEZKARI BAT**, langileen ordezkarien artetik hautatua.

Epaimahaiko kideek hitza eta botoa izango dute, epaimahaiko idazkariak, aholkulariak, hala badagokio, eta langileen ordezkariak izan ezik, azken horrek ez baitu botoa izango.

Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira eta, berdinketa gertatuz gero, epaimahaiko presidentearen botoak ebatziko du.

#### **4.- Oposizio-fasea** .- (gehienez 20 puntu)

---

Bi ariketa egingo dira; biak derrigorrezkoak dira, eta baztertzailleak.

- **Lehen ariketa:** Lanpostuari buruzko zereginekin lotutako galderen test motako galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio, Epaimahaiak zehazten duen denboran. **Gehieneko puntuazioa: 10 puntu.** Gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak automatikoki baztertuko dira.

Prozesua arintze aldera, bigarren ariketaren hurrengo fasera igaroko dira soil-soilik gutxienez 5 puntu lortu dituzten izangaien artean, ariketa honetan puntuaziorik handienak lortu dituztenak, gehienez ere hamar hautagaira iritsi arte. Hamargarren postutik beherako gainerako hautagaiak automatikoki baztertuko dira hautaketa-prozesutik. Lortutako puntuazioan berdinketa bat desegiteko beharrezkoa izanez gero, onartutako hautagaien gehieneko kopurua handitzea erabaki ahal izango du epaimahaiak.

- **Bigarren ariketa:** Deitutako lanpostuaren berezko egitekoekin lotuta epaimahaiak zehaztutako kasu praktiko bat edo batzuk ebatzea, epaimahaiak adierazten duen denboraren barruan. Ariketa honetan, baloratu egingo dira, bai adierazitako ezagutza teorikoak, bai horien aplikazio praktikoa. Era berean, azalpenaren sintesia eta argitasuna, arrazoiketa gaitasuna, kasua edo kasuak ebatzea, planteatzeko sistematika eta ondorioen formulazioa baloratuko dira. **Gehieneko puntuazioa: 10 puntu.**

Adierazi den bezala, ariketa guztiak derrigorrezkoak eta kanporatzaileak izango dira, eta gehienez ere 10 puntu emango dira. Ariketa bakoitzean gutxienez 5 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak automatikoki baztertuko dira eta, horrez gain, lehen ariketan baztertu egingo dira puntuazioan hamargarren postuaren azpitik geratzen direnak.

Ariketa bakoitzeko kalifikazioak epaimahaiko kideek emandako puntuazioak batuz lortuko dira, eta guztizkoa epaimahaiko kideen kopuruaz zatituko da; horietako bakoitzaren behin betiko sailkapena izango da zatidura.

Ariketa bakoitzeko puntuazioak erabakitzen diren egun berean argitaratuko dira.

#### **5.- Lehiaketa-fasea** .- (gehienez 16 puntu)

---

Lehiaketa-fasea oposizio-fasea amaitu ondoren hasiko da. Fase hori gainditu duten hautagaiak joko dute lehiaketa-fasera. Lehiaketa-fasean, eskabideak aurkezteko epean aurkeztutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Merezimendu horiek behar bezala egiaztatuko dira, Arriaga Antzokiko iragarki-taulan argitaratutako iragarkiaren bidez epaimahaiak emandako epean eta moduan.

Merezimenduak oinarri hauetan azaldutakoaren arabera baloratuko dira, eta ezin izango da beste merezimendurik baloratu. Ez da baloratuko izena emateko eskaeran alegatu ez den merezimendurik. Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte egindakoak bakarrik baloratuko dira.

Merezimenduen lehiaketa-fasean emandako puntuazioaren baturak ezingo ditu, guztira, 16 puntu baino gehiago izan.

### 5.1. Lan-esperientzia (gehienez 10 puntu)

- **Arriaga Antzokiko antzinatasunagatiko lan-esperientzia**, eranskin honetako 1. atalean adierazitako lanpostuko eginkizunak betez. Lan egindako hilabete bakoitzeko 0'10 puntu emango dira, **5 puntuko puntuazio maximoa**rekin. Horretarako, hilabete bat lan-bizitzaren arabera benetan lan egindako 30 egunen baturaren baliokidetzat hartuko da, eta lan-bizitzaren bidez eta erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da, honako hauek adieraziz:

- 1- Garatutako eginkizunak.
- 2- Lanpostuaren kategoria.
- 3- Gauzatze-datak.

- **Lan-esperientzia** beste antzoki, jaialdi edo kultura zentroetan, non antzerki-, dantza-, lirika- eta musika-emanaldiak egiten diren, eranskin honetako 1. paragrafoan adierazitako lanpostuaren eginkizunak betez. Lan egindako hilabete bakoitzeko 0'10 puntu emango dira, **5 puntuko puntuazio maximoa**rekin. Lan-bizitzarekin egiaztatu behar da, horretarako, hilabete bat lan-bizitzaren arabera benetan lan egindako 30 egunen baturaren baliokidetzat hartuko da.

A) Administrazio publikoan izandako esperientzia egiaztatzeko, ezinbestekoa da aurkeztea dagokion administrazioak edo erakundeak emandako jatorrizko ziurtagiria, eta bertan argi eta garbi adierazi behar dira:

- 1- Garatutako eginkizunak.
- 2- Lanpostuaren kategoria.
- 3- Gauzatze-datak.

B) Sektore pribatuan izandako esperientzia egiaztatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- 1- Gizarte Segurantzako kotizazioaren ziurtagiria (lan-bizitza).
- 2- Lan-kontratuen kopia, eskatutako esperientziarekin lotutako kategoria eta/edo funtzioak zehaztuta, kontratu berean adierazita, edo kontratuarekin lotutako enplegatzaileak emandako jatorrizko ziurtagiri sinatuaren bidez, garatutako eginkizunak argi eta garbi adierazita. Ez dira kontuan hartuko eskatutako esperientziarekin zerikusirik ez duten kontratuak.

Norberaren konturako langile, autonomo edo enpresa gisa sektore pribatuan izandako esperientzia egiaztatzeko, ezinbestekoa da dokumentazioa aurkeztea, hala nola merkataritza-kontratuak, sozietate-eskriurak eta balio ofiziala duten dokumentuak, esperientziaren edukia egiaztatzen dutenak. Horietatik argi eta garbi ondorioztatu behar dira:

- Garatutako eginkizunak.
- Lanpostuaren kategoria.
- Gauzatze-datak.

Aurkeztutako dokumentazioa ez da baloratuko, baldin eta aipatutako datuen xehetasun guztiak ez baditu. Ez dira kontuan hartuko ere praktika akademikoak, lankidetzak eta antzeko esperientzia profesionalak.

## 5.2. Hizkuntzak (gehienez 6 puntu):

**Euskara:** B1 maila egiaztatzen duen akreditazioa: **2 puntu.**  
B2 maila egiaztatzen duen akreditazioa: **3 puntu.**  
C1 maila edo goragokoa egiaztatzen duen akreditazioa: **4 puntu**

**Ingelesa:** B1 maila egiaztatzen duen akreditazioa: **1 puntu.**  
B2 maila egiaztatzen duen akreditazioa: **2 puntu.**  
C1 maila edo goragokoa egiaztatzen duen akreditazioa: **3 puntu**

Adierazitako hizkuntzen akreditazio edo titulazio ofizialik ez duten hautagaiei epaimahai kalifikatzailearen aurrean maila-proba bat egiteko aukera emango zaie, ahozko eta idatzizko maila egiaztatzeko, honako baldintza hauen arabera:

- 1- Eskabideak aurkezteko epean, gainerako dokumentazioarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen idatzi bat aurkeztu beharko da, epaimahaiburuari zuzendutakoa, duen maila baloragarria duela argudiatuz, eta berariaz eskatuko da elkarrizketa-maila eta idatzizko maila egiaztatzeko proba bat egitea.
- 2- Maila-proba egin ahal izango duten hautagaiak oposizio-faseko lehen eta bigarren ariketa gaingitu dutenak (gehienez hamar) eta hizkuntza-mailako proba egitea eskatu dutenak izango dira soilik. Epaimahai kalifikatzaileak ahozko eta/edo idatzizko maila-proba bat egingo die, eta dagokion balorazioa esleituko die lehiaketa-fase honetarako.
- 3- Probaren balio bakarra izango da epaimahai kalifikatzailearen aurrean modu frogagarrian egiaztatzea oposizio-lehiaketa honen ondorioetarako bakarrik balora daitekeen maila betetzen dela, eta arlo horretan espezializatutako kanpoko aholkularien laguntzarekin egin ahal izango da.

## 5.3. Prestakuntza (gehienez 4 puntu):

Deialdiko lanpostuarekin lotutako prestakuntza, **4 puntuko gehienezko puntuazioarekin**, gai hauei buruzko ikastaroetan:

- Arte eszenikoen teknika: makineria, argiztapena, soinua, tresneria, lan-sistemak.
- Laneko arriskuen prebentzioa.
- Ofimatika: Excel, Access, Word, Outlook.

Eskala honen arabera baloratuko dira:

- 30 eta 60 ordu arteko ikastaroak: 0'10 puntu.
- 61 eta 100 ordu arteko ikastaroak: 0'20 puntu.
- 100 orduetik gorako ikastaroak: 0'30 puntu.



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

**BASES PARA LA PROVISION  
EN EL TEATRO ARRIAGA DE:**

**AYUDANTE DE  
DIRECCION TECNICA**

**(ref.4/2024)**

**Primera: OBJETO DE LA CONVOCATORIA.-**

Es objeto de la presente convocatoria la provisión, vía CONCURSO OPOSICION, de los puestos relacionados en los anexos de estas bases.

Los puestos de trabajo de que se trata se contienen en los correspondientes anexos y se proveerán mediante los sistemas selectivos que en los mismos se determinen.

**Segunda: REQUISITOS DE LAS/LOS CANDIDATAS/OS.-**

Para poder tomar parte en el proceso selectivo será necesario:

- Poseer la nacionalidad española, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 57 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
- Edad: tener cumplidos dieciséis años y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa.
- Capacidad: Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas, debiendo poseer la aptitud psicofísica precisa y la compatibilidad de su capacidad o discapacidad para el normal desempeño de las funciones y tareas del puesto de trabajo al que corresponden las plazas convocadas, que se acreditará por los servicios médicos municipales, con independencia de las adaptaciones en el puesto de trabajo que, a tenor de la vigente normativa de prevención de riesgos laborales resulte necesario llevar a cabo para garantizar la protección de las personas frente a los riesgos derivados del trabajo.
- Habilitación: no haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los organismos constitucionales o estatutarios de las comunidades autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso a cuerpos o escalas de funcionarios.
- No hallarse incurso/a en causa legal de incapacidad o incompatibilidad, prevista en la normativa vigente en materia de incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas, sin perjuicio, para quienes ocupan ya un cargo público o una actividad privada incompatible, de ejercitar el derecho de opción a que se refieren las citadas normas legales.
- Aquellos otros que, específicamente, se fijen para el proceso selectivo en el correspondiente anexo.

Quienes deseen tomar parte en la convocatoria deberán reunir la totalidad de los requisitos exigidos a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

Asimismo, deberán poseerse todos ellos durante el procedimiento de selección hasta el momento de la contratación, excepto el señalado en el apartado c) relativo a la capacidad funcional, que deberá ser certificado por los servicios médicos municipales antes de la contratación.

Asimismo, los requisitos específicos de cada proceso selectivo deberán poseerse y justificarse documentalmente (mediante su entrega) al momento de finalización del plazo

de presentación de solicitudes.

